


Nola atera bizimodua landa-eremuan GGKEak eta garapen ekonomiko-produktiborako gaitasunak sustatzea (1994-2014)



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2.
48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135

Barañain etorbidea, 2
31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302

Andia, 3
20004 Donostia
Tel.: 943 275 173

Estenaga Apezpikua, 1
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Data: Abenduak 2015

Egilea: Alicia Aleman Arrastio

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Eskerrak: Walter Abramonte, Manuel Alburqueque,
Pierre Corset, Jorge Giraldo, Mary Tere Guzmán,
José Luis Juárez, Rosa Prieto, Amaia Unzueta

ISBN: 978-84-942938-8-7

Lege-gordailua: BI-79-2016

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin
eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Contenido

1. Aurkezpena	5
2. Gaitasunen ikuspegia: laburpena	9
3. Gaitasunak praktikan	13
Gaitasunak garatzea versus gaitasunak sortzea	13
Hiru mailak	15
Lau kategoriak	16
Gaitasunak, herri-heziketaren eta Jesuiten tradizioetik begiratuta	17
4. Centro de Promoción e Investigación del Campesinadoren (CIPCA) esperientzia	21
5. Instituto Mayor Campesinoren (IMCA) esperientzia	29
6. Bizimoduak eta gaitasunak: aurkikuntza batzuk	35
7. Ikasitakoak	43
8. Bibliografia	47
Irudiak	
1. Irudia. COMPARTERen Gaitasunak Garatzeko Mapa	16
2. Irudia. Nola landu ditu CIPCAk gaitasunak?	23
3. Irudia. Nola landu ditu IMCAk gaitasunak?	31
Taulak	
1. Taula. Gaitasun-motak, eragileak eta estrategiak: adibide batzuk	19
2. Taula. CIPCAk aldi bakoitzean egindako apustu estrategikoa	27
3. Taula. IMCAk aldi bakoitzean egindako apustu estrategikoa	34

1. Aurkezpena

Ez da inoiz erraza izan landa-eremuan bizimodua ateratzea. Azken 20 urteetan landa- eta nekazaritza-eremu horietan aritu diren GGKEen lana ere ez da erraza izan. Jarraipena eta aldaketa izan dira lan horren ezaugarri nagusiak. Argitalpen hau, 2011n hasitako sorta baten hirugarrena, COMPARTE¹, ikasketa- eta ekintza-komunitateak hasitako lanaren segida da; proiektu horretan, Latinoamerikako 14 GGKE eta Europako 1 elkartzen dira, aukera ekonomikoak sustatzeko zer zeregin duten hausnartzeko. Jarraipena eta aldaketa dira justizia sozialaren eta “bestelako mundu” hori eraikitzen aritzen diren erakundeon lanaren ezaugarriak. Lan horren abiapuntua *praxia* da; alegia, garapen ekonomiko-produktiborako gaitasunak sustatzeko esperientzia jakin batzuk, eta egunero erabaki behar izaten dute **jarraipena** ala **aldaketa** hautatu behar duten.

Hauek dira argitalpen honen aurrekariak: “*El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia*” eta “*El desarrollo de capacidades como estrategia de cambio. Una experiencia colectiva de búsqueda de alternativas*”. **ALBOAN** GGKEk argitaratu zituen eta COMPARTE ikasketa-komunitatearen webgunean eskura daitezke. Komunitatearen ustez garapen alternatibo batek nahitaez izan behar dituen zortzi ezaugarriren laburpena da lehenengo argitalpena. Ikuspegi arautzailea du abiapuntu, baina GGKEen lana bideratzen den tokiko hizkuntzara, errealitatera eta egoerara egokituta.

Gaitasunei buruzko ikuspegiaren sarrera da bigarren argitalpena, eta “gaitasun-mapa propioaren” oinarriak finkatzen ditu, COMPARTE komunitateak berak sortuta, esperientzien ekarpena aztertu ondoren. Gaitasunen garapenari buruzko ikuspegi kolektiboa ematen du, eta izaera arautzailea du. Lehenengo argitalpenean bezala, mapa honen oinarria GGKEek gertu-gertutik ezagutzen dituzten errealitateak dira, eta alderdi arautzailea jorratu da gero hortik,

1 www.desarrollo-alternativo.org

gaitasunei buruzko lan integral batek izan beharko lukeena edo izan daitekeena kontuan harturik.

Hirugarren argitalpen hau “gaitasun-mapa” horrekiko elkarrizketa bat da, eta azterketa enpiriko-praktiko bat planteatzen du. 1994-2014 bitartean bi GGKEk gaitasunen garapenean izandako esperientziak ditu oinarri: bidean ikasitakoak, batetik, eta etorkizuneko bideei buruzko hausnarketa, bestetik. Zehazki, bi GGKEk gaitasunen garapenaren alorrean 20 urtez egin duten lanaren atzera begirada bat da. Izan ere, 40 urte inguru daramatzate lanean Peruko eta Kolonbiako landa-eta nekazaritza-eremuan bi erakundeak: Piurako (Peru) Centro de Investigación y Promoción del Campesinado (CIPCA)² eta Valle del Cauca (Kolonbia) Instituto Mayor Campesino (IMCA)³.

2014ko urritik 2015eko apirilera, Deustuko Unibertsitaterako doktoretzako ikerketa baten barruan, egindako landa-lan bat da argitalpenaren oinarria. Batetik, CIPCA eta IMCAko eta tokiko beste GGKEetako eta tokiko eta estatuko komunitate akademikoko teknikariei eta zuzendariei egindako elkarrizketetatik hartu dira datuak. Bestetik, landa-lana eta nekazaritza-eremuan bizi diren familiei egindako elkarrizketak ditu oinarri ikerketak. Hala, azken 20 urte hauetan eremu eta familia horiek izan duten ibilbide ekonomiko-produktiboa aztertu da. CIPCA eta IMCA erakundeekin harreman estua eta ez hain estua izan duten familiekin lan egin da. Ikerketan, hiru galdera nagusi egin dira: i) Nola ulertu eta landu dute gaitasunen garapena CIPCA eta IMCA erakundeek?; ii) Nola berreraikitzen dute familiek haien “bizimoduaren” bidea?; iii) Zer harreman dago CIPCA eta IMCA erakundeek sustatutako gaitasunen eta familien bizimoduen artean?

Argitalpena zazpi ataletan banatuta dago. Lehenengo, gaitasunen ikuspegia eta bakoitzaren ezaugarriak laburbildu dira. Ondoren, azken 20 urte hauetan CIPCA eta IMCA erakundeek gaitasunaren garapenaren alorrean egindako jarduerak eta estrategia-motak bereizi dira. Hartara, erakundeen eguneroko jardunean gaitasunak nola ulertu eta landu diren aztertu da. Ondoren, CIPCA eta IMCA erakundeen ibilbidearen bilakaera deskribatzen da, eta bi erakundeetan gaitasunen garapenaren estrategia-aldaketari eta -jarraipenari eragiten dioten faktore batzuk aztertzen eta mailakatzen dira. Azkenik, azkenurreko atalean, elkarrizketatutako familien bizimoduak eta bizimoduen estrategiak

2 www.cipca.org.pe

3 www.imca.org.co

aztertzen dira. Interpretazioan laguntzeko, landa-lanean ikusitako eta nazioarteko eta Latinoamerikako nekazaritza-ekonomian eta landa-soziologian jadanik deskribatuta dauden prozesu batzuk izan ditugu bidelagun. Azkenik, esperientziatik ikusitakoen eta erronken ondorio-zerrenda bat agertzen da, lagungarri izan dadin garapen ekonomiko alternatiboetan aritzen diren GGKEen hausnarketarako eta jardunerako.

2. Gaitasunak praktikan: laburpena

Zuzenean pertsona, etxe eta komunitate baztertu, pobretu eta zaugarriekin lan egiten duen edozein garapen-erakundek planteatu dezakeen galdera nahiko sinplea da argitalpen honen abiapuntua: Nola “hobetzen da” jendearen bizitza?

Galdera horri erantzuteko, hausnarketa are sakonagoa egin behar dugu pertsonen “bizimodu on edo ongizateari” buruz, eta aldaketa sozialen prozesuei (nahita edo nahigabe eragindakoak) buruzko galderetan sakondu. Gure ustez, gaitasunen ikuspegiak azalpen sendoko bide egokiak planteatzen ditu, pertsonen ongizateari buruz eta aldaketa sozialaren zentzuari buruz hausnartzeko. Ikuspegi horren arabera, bizimodu ona da pertsonen hura *baloratzeko arrazoiak* dituzten huraxe, eta aldaketa sozialaren helburuak izan behar du *askatasunak zabaltzea*, pertsonen bizimodu hori hautatzeko aukera izan dezaten⁴.

Gaitasunen ikuspegiak pentsamenduen tradizio liberal luzearekin du lotura, eta Amartya Sen da gaur egungo formulazioaren aitzindari eta ordezkari nagusia, Martha Nussbaumekin batera. Autore klasikoek ere (adibidez, Aristoteles, Adam Smith eta Marx bera) aipatu dituzte gaitasunen formulazioaren alderdi batzuk. Baina beste egile batzuek Frediani, Boni eta Gasper (2014:2) nabarmentzen dute Sen eta Nussbaum-ek gain beste egile batzuetara edo haiek hizpide dituzten edo haiek aipatzen dute literaturara jotzeko beharra, bereziki “gaitasunen ikuspegiaren agenda praktikoa aberasteko eta ikuspegi horretan oinarritutako jarduerak erradikalizatzeko”.

Edonola ere, esan daiteke ikuspegia sortu dela pentsamendu ekonomikoan eta egungo filosofia politikoan ikuspegi utilitaristaren gehiegizko nagusitasunaren

4 “Baloratzeko arrazoiak” eta “askatasunak zabaltzea” ohikoak dira Amartya Senen diskurtsoan. Hark bereziki zaintzen du pertsonen arrazoibidea eta argudiaketa (baloratzeko arrazoiak), eta aurreikuspenei eta formula zehatzei buruz baino gehiago amaitu gabeko prozesuei eta prozesu inperfektuei buruz dihardu.

aurkako erreakzio gisa, horietan gai bakar batekin lotzen baita bizimodu ona: baliabide gehiago —bereziki errenta— edukitzearekin, hain zuzen ere. Ez da hartzen ongizatearen teoriatzat, baizik eta ikuspegitzat; izaera irekia, diziplina anitzekoa, berariaz bukatugabea eta aplikazio-sorta zabala duen ikuspegitatzat⁵.

Gaitasunen ikuspegia erabat arautzailea da; pertsonen ongizatearen gaia nola planteatu baloratzen baitu. Asmoa ez da ongizatearen, bazterkeriaren, pobrezia-aren, zaurgarritasunaren edo injustiziaren gabeziaren arrazoiak azaltzea; horretarako, beste korrante teoriko batzuetara jo behar da⁶. Ongizateak zer izan beharko lukeen planteatzeak laguntzen du erantzuten ongizateari eta garapenari buruzko funtsezko galderari erantzuteko oinarri diren kontzeptuei; horrez gain, eztabaidak bideratzen ditu, eta, beraz, baita politika publikoak ere. Hori dela eta, preskriptibo bihurtzeko aukera ugari ematen ditu⁷.

Hiru dira gaitasunen ikuspegiaren kontzeptu nagusiak: funtzionamenduak, gaitasunak eta agentzia. Funtzionamenduak dira “pertsona batek izatea edo egitea baloratu ditzakeen gauzak”, alegia, pertsonen ongizatea osatuko duten jarduerak eta egoerak: pertsonak egindakoak edo lortutakoak dira, adibidez, ongi elikatuta egotea edo lan on bat edukitzea. Ondasun eta errentekin lot daiteke, baina, bereziki, pertsonak ondasun edo errenta horiekin egiten dutenarekin dago lotua. Gaitasunak, berriz, pertsonak funtzionamenduez gozatzeko dituzten askatasun eta aukerak dira. Zehazki, “pertsonak lor ditzaketan funtzionamendu-konbinazioak (egoerak eta jarduerak). Pertsonen askatasuna islatzen duten funtzionamendu-bektoreen multzo bat dira. Zertarako? Baloratzeko arrazoiak dituen bizitza-estiloa edukitzeko; hau da, nahi den bizimodua hautatzeko “funtsezko askatasunak” dira. Azkenik, agentzia da pertsona batek baloratzen

5 Ikuspuntu filosofikotik begiratuta ikuspegiaren laburpen osoa egiteko, Stanford Encyclopedia of Philosophyren definizioa (2011ko apirilaren 14koa) irakurtzea aholkatzen dugu, helbide honetan: <http://plato.stanford.edu/entries/capability-approach/>

6 Hau da Ingrid Robeyns-eren planteamendua, eta hala dago azaldua bere webgunean aurkeztutako dokumentu eta hitzaldietan: www.ingridrobeyns.nl.

7 Argitalpen honetarako bereziki garrantzitsua da alderdi arautzailearen, positiboaren eta preskriptiboaren artean Deneulin & Shanani (2009) egindako bereizketa, Keynesek 1891n egindako proposamena oinarri hartuta. Garapenaren edo ongizatearen azterketa arautzaileak ongizateak izan beharko lukeenari buruzko balio-judizioak dira. Análisi positiboak (edo enpirikoak) datuen eta ebidentzien análisisetan ardatzen dira. Análisi preskriptiboak dira politika edo ekimen jakin batzuk sustatuz gero zer gertatuko litzatekeen aztertzen dutenak.

dituen (eta baloratzeko arrazoiak dituen) helburuak lortzeko ahalmena. Agente bat da jarduten duen eta aldaketa ekartzen duen pertsona bat.

Bestela esanda, funtzionamenduak dira “pertsonak espontaneoki garrantzitsutzat jotzen dituzten baliabideak, jarduerak eta jarrerak biltzen dituen terminoa; adibidez, zuzentasuna, ezagutza, adiskidetasun gertuko bat, adimen hezi bat eta lanbide on bat” (Alkire, 2003:5). Eta gaitasunak, berriz, pertsonak bizimodu jakin bat lortzeko dituzten askatasunak dira, horretarako aukera-sorta aintzat harturik. Senek dienez, ongizatearen ebaluazioak aukeretan zentratu beharko lirатеke, ez lorpenetan. Desberdintasun hau osatzeko metaforarik ezagunenetakoa bat gosea da: barauaren ondorioa izan daiteke, edo janaria lortzeko ezintasunaren ondorioa. Funtzionamenduari dagokionez, gose diren bi pertsonak gabezia-maila berbera edukiko lukete. Baina, jakina, horrek ez digu egoeraren ikuspegi errealista ematen; aitzitik, gaitasunei begiratzen baldin badiegu, hau da, gose diren bi pertsona horiek izan dituzten askatasun edo aukerei, ikuspegi errealistagoa izango dugu.

Nola bihurtzen dira gaitasunak funtzionamendu? Robeyns-ek (2003) eta Frediani-ek (2010, 2014) sakon aztertu dute prozesu hau. Biek diote arreta ez dela jarri behar aukeretan bakarrik, baizik eta gaitasun horiek funtzionamendu bihurtzea eragiten duten indarretan ere bai. Beraz, uste dute funtsezkoa dela pertsonak hautatzeko duten trebetasunean eragiten duten baldintza pertsonalei eta egiturazkoei erreparatzea. Faktore horiek bihurketa-faktoreak dira, eta aukerak lorpen eta gaitasunak funtzionamendu bihurtzeko moduari eragiten diote. Robeyns-en arabera (2003), hiru dira agentziaren askatasunari eragiten dioten bihurketa-faktoreak: ezaugarri pertsonalak (metabolismoa, egoera fisikoa, adimena, etabar), ezaugarri sozialak (politika publikoak, arau eta jarduera sozialak, generoen rola, hierarkia sozialak, botere-harremanak, etabar) eta ingurumen-ezaugarriak (klima, azpiegitura, erakundeak, ondasun publikoak, etabar). Bihurketa-faktoreen bidez, Robeynsek eta beste egile batzuek izaera estrukturalagoa duten elementuak eransten dizkiote gaitasunen ikuspegiari. Hori dela eta, zera proposatzen du Fredianik (2010): a) baliabideak lorpen bihurtzen dituzten bihurketa-faktoreetan zentratzea; b) botere-harremanen azterketa prozesu horietan txertatzea; c) gaitasunen ikuspegiak aplikatzean metodo partizipatiboak erabiltzeko mekanismoak proposatzea. Proposatzen du “gaitasunen espazioan” oinarritzea, eta, termino horren bidez, baliabideak funtzionamendu bihurtzeko pertsonak dituzten aukerei eta tresnei buruz ari da. Gaitasunen espazio horretan faktore indibidualak, sozialak eta egiturazkoak sartuko lirатеke.

Gaitasunen espazioa eta bihurketa-faktoreak bereziki garrantzitsuak dira, gaitasunen garapenaren eta bizimoduen arteko erlazioa aztertzeko; garbi ikusten da hori argitalpen honen oinarri den ikerketan. Zein faktorek azaltzen dute pertsona, familia eta erakunde batzuek GGKEek sustatutako gaitasun, trebetasun eta /edo jarrera batzuk txertatzea beren bizimoduetan (adibidez, kafearen laborantza agroekologikoa), eta beste batzuek, berriz, ez? Gaitasunen zer espazio eduki du batez beste, adibidez, Peruko etxe batek bere bizimodua laborantza tradizionaletik agrosportaziora edo merkataritza justura aldatuta? Zer eragin dute politika publikoek, GGKEen ekimenek, familia-arteko botere-harremanek edo ingurumen-mugek espazio horretan?

Hausnarketa interesgarria da lagundu dezakeena ulertzen zergatik izan duten eragin handiagoa gaitasunen ikuspegiak eta giza garapenak LANE Lanaren Nazioarteko Erakundeak sustatutako “lan duin” kontzeptuak baino. Sehnbruch et al. (2015) ikertzaileen ustez, gaitasunen ikuspegiaren oinarri teoriko, instituzional eta enpiriko sendoa da horren arrazoia. Edonola ere, bai gaitasunen ikuspegiaren literatura, bai praktika, bat datoz honetan: aurrera egin behar da operazionalizazioan, erradikalizatu egin behar da praktika, haren mugak onartu, eta “erakundeen arteko harremanak eta ekintza egituratzeko hartutako tresnak aztertu behar dira... tresnak botere-harremanen eta injustizien diagnostikoan oinarrituta baitaude askotan” (Frediani, Boni & Gasper, 2014:10). Horixe da argitalpen honen helburua, eta COMPARTE ikasketa- eta ekintza-komunitatearena: esperientzietatik ikastea, errealtatea aztertzea.

3. Gaitasunak praktikan

Baina zer dira gaitasunak? Nola neurtzen dira? GGKE batean gaitasunak sustatzeaz edo garatzeaz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara? Zer desberdintasun dago gaitasun baten, konpetentzia baten, trebetasun baten, talentu baten edo jarrera baten artean? Zer tresna eta estrategia erabiltzen dira horiek garatzeko?

Landa-lanetik argi ondorioztatzen da aztertutako bi GGKEen —CIPCA eta IMCA— jardueraren mamia “trebakuntzaren, hezkuntzaren eta antolakuntzaren” alorra dela. Nolabait esan dezakegu “gaitasunak” sortzeko, garatzeko, sustatzeko eta/edo indartzeko egiten duten lana bi erakundeen DNAREN parte dela, eta horrela izan da haiek dituzten 40 urte baino gehiagotan. Bildu dugun material askok uzten dute agerian bi erakundeek sustatu dituzten trebakuntza-programen, gaitasun-programen, ikastaroen, lantegien, mintegien, eskolen eta ekitaldien aberastasun handia. Laburbilduz, trebakuntza-jardueren aukera-sorta konplexu bat, “helduentzako hezkuntza ez-arautua” deitu dakiokena.

Atal honetan, CIPCAk eta IMCAk “gaitasunen garapenaren” alorrean azken 20 urteetan egin duten lanari atzera begirako begirada bat ematea proposatzen dugu. “Gaitasunak garatzea” adierazpena aukeratu dugu atal honetarako, eta ez horrez gain erabiltzen diren gaitasunak “indartzea” edo “bultzatzea” adierazpenak, hizkuntza homogeenagoa eta argiagoa erabiltzeko. Bestalde, gaitasunak “garatzea”ren eta gaitasunak “sortzearen edo eraikitzea”ren artean kontzeptu-bereizketa bat egitea proposatzen dugu, Nazio Batuen Garapen Programak (GNBP) egiten duen antzekoa.

Gaitasunak garatzea versus gaitasunak sortzea

Hala, hau da gaitasunak “garatzea”: “gaitasunak sortzeko eta eraikitzeko prozesua, eta (gero) haiek erabiltzea, kudeatzea eta mantentzea. Prozesu hori erakundearen barrutik bultzatzen da, eta lehendik dituzten gaitasunak hartzen dira abiapuntu”

(GNBP, 2008:5). Definizio horretan azpimarratzekoa da zer garrantzi ematen zaien bai lehendik dituzten gaitasunei bai gero haiek erabiltzearekin, kudeatzearekin eta mantentzearekin iradokitzen den jarraipenaren ideari. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da epe luze eta ertainera aldaketak eragin nahi dituzten ekimenetan; esaterako, nekazaritza-familien bizibideak sendotzean. Adibidez, tradizionalki kakao-ekoizleena den eremu batean kakaoaren laborantza hobetzeko gaitasun-programa iraunkor baten kasua izango litzateke hori: ezagutza berriak indartzen dira, eta beste teknika eta trebetasun batzuk erakusten dira, baina lehendik dituzten gaitasun jakin batzuetatik eta ezagutza tradizional batzuetatik abiatzen dira.

Bestalde, gaitasunak “eraikitzean edo sortzean”, gaitasunen hutsune batetik abiatzen da edo, gutxienez, abiapuntu falta batetik, eta, beraz, zerotik hasia iradokitzen du adierazpenak, “laguntza emanaz gaitasuna eraikitzeke edo sortzeko hasierako faseetan”. Hori litzateke, adibidez, kafe-ekoizleen elkarte baten bidezko merkataritzako arauen lehen ziurtagiri bat lortzeko gaitasun-programa bat, horrelako ekimen bat inoiz egin ez den zona batean.

Urteetan zehar, bi erakundeek gaitasunen garapena nahiz gaitasun “berrien” eraikuntza edo sorkuntza landu dute. Bereizketa hori garrantzitsua da, batez ere bai IMCAk bai CIPCAk beren eskualde-testuinguruetan sustatu dituzten ekimen aitzindari batzuen garrantzia aztertzeke orduan. Bi erakundeek, gaitasunak sortzeko prozesutzat erraz defini litezkeen programa eta ekimen konplexuen bidez, laborantza berriak, nekazaritza eta abeltzaintzako teknikak, antolakuntza-sistemak edo agenda politikoak sartzea lortu dute (batzuetan, arrakastatsu; beste batzuetan, ez). Prozesu konplexuetan egin dute hori, eta, horietan, gaitasun “berrien” eta “zaharren” artean ere badago atzeraelikadura bat, eta haien genealogian ere esku hartzen dute egitura-faktoreek (nazioarteko lankidetzaren beraren joerak edo estatuen politika publikoak). Eta horiek ezin dira alde batera utzi, ikuspegi orokor batez ikusi nahi bada zergatik hartzen diren kontuan gaitasun jakin batzuk eta ez beste batzuk.


Bestetik, garrantzitsua da, halaber, xeheago aztertzea zer den garatutako gaitasunak “erabiltzea, kudeatzea eta mantentzea” eta zer faktorek eragozten edo sustatzen duten gaitasunak praktika benetakora transferitzea. Gaitasunen ikuspegiaren hizkuntzan, horren baliokidea izango litzateke aztertzea zer faktorek bihurtzen dituzten gaitasunak funtzionamendu, eta horrek nahitaez “bidelaguntza” kontzeptuaz hitz egitera behartzen gaitu CIPCA eta IMCAren kasuan.

Hiru mailak

Landa-lanak hiru egoera jartzen ditu agerian: i) bi GGKE horien lanaren mamia gaitasunak garatzea izan da, ii) komenigarria da bereiztea gaitasunak garatzea eta gaitasunak sortzea, eta bereizketa horrek behartzen gaitu modu xehatuago batean aztertzeraz esku-hartzeen konplexutasuna, denboran duten jarraipena eta gaitasun zaharren eta berrien arteko berrelikadura-prozesuak, eta iii) egindako lanaren subjektuak norbanakoak nahiz familiak, erakundeak nahiz ingurune globalago bat (edo sistema) izan dira.

Hori bat dator GNBPK egiten duen hiru mailako proposamenarekin (ingurunea, erakunde-maila eta norbanakoaren maila) eta COMPARTERen gaitasun-mapak duen antzeko proposamenarekin (norbanakoa, antolaketakoa eta sistemikoa deritzona) (Ikus irudia 16. orrian). Urteetan zehar, bai CIPCAk bai IMCAk hiru mailak landu dituzte, baina intentsitate, erritmo eta estrategia desberdinekin, identifikatutako aldien arabera. Horrez gain, eta jarraian ikusiko den bezala, gaitasun kolektiboak daudela suposatzen da, gaitasunen garapenaren alorreko esku-hartzeen hartzaileak izan baitira norbanakoak nahiz familiak, elkarteak, kooperatibak, erabakitze-/antolatze-guneak, eta, azkenaldian, baita erakunde publikoak ere. Lan honi ikuspegi analitikotik eta atzerabegirakotik begiraturaz gero, hobeto ulertzen da faktore askok eragiten dutela subjektuen enfasi-aldaketetan eta maila bat edo beste bat lantzeko baliatzen diren intentsitateetan.

1. Irudia. COMPARTERen Gaitasunak Garatzeko Mapa



Iturria: **ALBOAN.** (2015). *El desarrollo de capacidades como estrategia de cambio.*

Lau kategoriak

Azkenik, esan daiteke CIPCAk eta IMCAk COMPARTERen gaitasun-mapan identifikatutako lau kategorietan landu dutela gaitasunen garapena: fisiko-materialak, politiko-sozialak, psikologikoak eta zentzu eta nortasunekoak. Bestalde, ez dira aldi berean landu kategorია guztiak, ezta intentsitate berarekin ere. Oro har, lana askoz sakonagoa, askotarikoagoa eta konplexuagoa izan da lehen bi kategorietan azken bietan baino bi erakundeentzat. Alderdi fisiko-materiala CIPCA-n eta IMCA-n erakundeen hasieratik bertatik jorratu da: baliabideen

maneiua, ekoizpen-sistemak, laborantza berriak, nekazaritza-esperimentazioa, jakintzen berreskuratzea eta trebakuntza-, ikerketa- eta laguntza-jarduera ugari. Intentsitate-maila desberdinekin egin den arren, alderdi fisiko-materiala gaur egunera arte jorratu da, nahiz eta ezartze- eta ikuspegi-estrategia desberdinak erabili. Batez ere 2000. urtetik aurrera, kategoria politiko-soziala eta hari lotutako gaitasunak gero eta gehiago jorratu dira bi erakundeetan, eta partaidetza politikorako gaitasun gehiago garatuz joan dira. Halaber, partaidetzarako gune instituzional gehiago irekiz joan dira, estatutik ere sustatu diren erreformen bidez.

Alde handiz, alderdi psikologikoko gaitasunak garatu dira gutxien. Eta garatu direnean, ez da hain esplizituki egin edo bigarren maila batean egin da, dagoeneko erakundeetan finkatuta dauden programen eta jardueren bidez. Landa-lanean bildutako datuak eta dokumentazioa arreta handiagoz analizatu behar dira oraindik, baina batez ere gazteentzako eta emakumeentzako programetan landu dira gehien gaitasun psikologikoak. Bereziki interesgarria da aztertzea zer modutan txertatu eta landu diren genero-berdintasuneko gaiak bi erakundeetan. Gero eta gehiago landu dira azken urteotan. Azkenik, zentzuaren eta nortasunaren kategoria bi erakundeetako pertsona jakin batzuek (batez ere jesuitak) egin duten jarduera pastoralarekin lotuagoa egon da, zeinek, aldi beran, beste kategorietako gaitasunak ere landu baitituzte. Ikusi da kategoria hori agian agerikoagoa dela IMCArentzat CIPCArentzat baino, baina inola ere ez da hauteman hori denik bi erakundeen lanaren nukleoa.

Gaitasunak herri-heziketaren eta Jesuiten tradizioetik begiratuta

Ez CIPCAk, ez IMCAk ez dute gaitasunen garapena landu gaitasunak zer diren edo haiek lantzeko metodoak aurrez zehaztuak dituzten definizioetatik eta parametro zurrunetatik abiatuta. Baina, bai ikusten da bi erakundeen lanaren orientazio orokorrean eragina izan dutela herri-heziketako eta jesuiten tradizioeko joerek.

Landa-lanean, apenas aipatu da gaitasunen ikuspegia, ezta haien doktrina-iturri edo egile garrantzitsuenak ere. Alabaina, giza garapenako indizeak masiboki erabiltzen dira proiektuen formulazioetan (batez ere, nazioarteko lankidetzakoetan), eta, batzuetan, modu erretoriko samarrean erabiltzen da giza garapenaren hizkuntza, batez ere nazioarteko lankidetzako funtsak lortzera bideratutako proiektuak formulatzean.

Horrek ez du esan nahi gaitasunak garatzeko lan eta ahalegin horren guztiaren atzean ez dagoenik pertsonaren eta gaitasunen ikusmolde jakin bat eta bi erakundeen lana elikatzen duen aldaketa sozialaren teoria bat. Horri lotuta, askotan aipatu dira, eta bi kasuetarako, bi erakundeen lanaren inspirazio izan diren “doktrinazko” iturri gisa Paulo Freire eta herri-heziketa, pertsoneri eta taldeei laguntzeko eta haiek trebatzeko jesuiten tradizioa, eta, azkenik, Elizaren doktrina soziala.

*Laburbilduz, esan daiteke IMCAk eta CIPCAk gaitasunak garatzeko egin duten lana **sakona, askotarikoa eta dinamikoa** izan dela. **Hiru mailetan** landu da (pertsonak/familiak, erakundeak eta sistema) eta **lau kategorietan** (fisiko-materiala, soziopolitikoa, psikologikoa, eta zentzu eta nortasunekoa), nahiz eta lehenengo biak gehiago landu. Bi erakundeei buruz aztertu diren etapetan, gaitasunak garatzeko estrategiak aldatuz joan dira, faktore oso konplexuen arabera (zerikusia dute testuinguru lokalarekin eta nazionalarekin, baita finantzazio-iturriekin eta pertsona batzuen lidergoarekin ere). Gaitasunak lantzeari buruzko aurrez zehaztutako planik edo estrategia espliziturik ez badute ere, **doktrina-iturri sendoak** dituzte, **ibilbide luze bat** eta **testuinguruaren etengabeko azterketa eta testuingururako etengabeko egokitzapen-lan bat**.*

Jarraian, CIMCAk eta IMCAk gaitasunen garapenaren alorrean zer jardueramota egin dituzten azalduko dugu, zer eragilerekin egin den lan hiru mailetan eta zer estrategia-mota erabili diren. Adibidez, gaitasun fisiko-materialen kategorian, alor tekniko-produktiboko gaitasunez hitz egin genezake, hala nola hauen maneia: haziak eta laborantzak, izurriak, makinak eta ekipamenduak. Gaitasun horiek zuzenean norbanakoekin eta familiekin garatu ahal izan dira, eta horiek jabe kooperatibistak, komuneroak, pribatu tituludunak edo ez-tituludunak edo baita ez-jabeak ere izan zitezkeen. Edo elkarte edo kooperatibetako kideei zuzenduak izan zitezkeen edo beste gune batzuetan eskainiak.

Era askotako estrategiak erabili dira, garaiaren, proiektu-motaren edo eragile lehenetsien arabera: une jakin bateko laguntza teknikoa eman da (kuasi-iraunkorra edo une jakin batekoa, eskaeraren arabera edo aurrez ezarria), aholkularitza (une jakin batekoa edo iraunkorra), laguntza osoa, era eta ezaugarri guztietako trebakuntza, mintegien eta lantegien antolakuntza, ikerketa eta baita ospakizun edo ekitaldi ez-konbentzionalak ere.

1. Taula. Gaitasun-motak, eragileak eta estrategiak: adibide batzuk

CIPCaren eta IMCaren laguntza-laneko gaitasun-motak, eragileak eta estrategiak (1994-2014) <i>Praktikatik ateratako adibide batzuk</i>		
ZER <i>Gaitasun-motak</i>	NOR <i>Eragileak</i>	NOLA <i>Estrategiak</i>
<p>Tekniko-produktiboak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hazien eta laborantzen maneia - Izurrien maneia - Makinen eta ekipoen maneia - Baliabideen maneia (ura, lurzorua) <p>Ekonomiko-administratiboak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lursailen eta partzelen kudeaketa - Elkarteen eta kooperatiben kudeaketa - Jarraipen administratiboa - Finantza-jarraipena - Kalitate-kontrola 	<p>Norbanakoak eta familiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jabe kooperatibistak - Komuneroak - Pribatu tituludunak - Pribatu ez-tituludunak - Ez-jabeak <p>Elkarrekin eta kooperatibak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laborantza tradizionala eta ez-tradizionala ekoizleak - Bidezko merkataritzako elkarrekin - Nekazaritza ekologikoko ekoizleak - Kooperatibak 	<p>Laguntza teknikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - une jakin batekoa - iraunkorra - eskaeraren arabera <p>Aholkularitza</p> <ul style="list-style-type: none"> - une jakin batekoa - iraunkorra <p>Laguntza osoa</p> <p>Trebakuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - une jakin batekoa, eskaera bati erantzunez - une jakin batekoa, eskaintza bati erantzunez - aldizkakoak: ikastaroak, programak, eskolak

<p>Antolaketakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elkarteen eta kooperatiben sorrera - Lidergorako trebetasunak - Baliabideak eskuratzea - Marketina eta komunikazioa <p>Politiko-sozialak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza-diagnostikoak egitea - Garapen-planak eta bizi-planak egitea - Politiken jarraipena eta zaintza - Antolatze-/erabakitze-guneetan parte hartzeko eta negoziatzeko trebetasunak <p>Psikologikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lidergoa - Gatazkak konpontzea - Genero-ekitatea - Etxeko indarkeria - Maskulinitateak - Emozioen kudeaketa <p>Zentzia eta nortasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espiritualtasuna(k) 	<p>Beste eragile eta gune batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazarien errondak - Herri Ekintzen Biltzarrak - Erabakitze-guneak - Tokiko gobernua - Eskualdeko gobernua - Komunikabideak - Emakume-taldeak - Gazte-taldeak - Nekazaritza ekologikoko azokak - Parrokiak - Kristau-komunitateak 	<p>Mintegiak eta lantegiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - eztabaidakoak - eragitekoak <p>Ikerketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - aplikatua - teorikoa <p>Tokiko jakintzak berreskuratzea</p> <p>Ospakizunak</p>
---	---	---

Iturria: geuk prestatua, landa-lanean oinarrituta, 2014-2015.

4. CIPCAREN esperientzia

Centro de Promoción e Investigación del Campesinado (CIPCA) Piura eskualdean egiten du lan, Peruko iparraldean, landa-eremuaren eta eskualdearen garapena sustatzen. Jesusen Lagundiak sortu zuen, 1972an, 1968an Velasco-Alvaradorek gobernu militarrekin Perun hasi zen nekazaritza-erreformako prozesuan laguntzeko. Sortu zenetik igarotako ia 50 urteetan, ikerketa aplikatua eta teorikoa egin du; gaitasunen garapenean jardun du era guztietako trebakuntzen, lantegien, mintegien, ikastaroen bidez, finantzatuz eta ekoizleei eta elkarteei lagunduz; nekazarien erakundeak eta ekoizle txikiak indartzen jardun du, eta, azkenaldian, erabakitze-guneetan eta Piurako eskualdeko eta tokiko gobernuetan herrian eta eskualdean eraginez, politika publikoak egiteko.

Beraz, 50 urteko lana da, alor askotakoa eta ñabardura askokoa, non norbanakoen gaitasunen eta gaitasun kolektiboen garapenean lan jarraitu bat ikus baitaiteke. CIPCAREN inspirazio-iturria, ordea, ez da Amartya Sen-en tradizioko gaitasunen ikuspegia. Landa-lanerako elkarrizketatu ziren lagun gehienek beste inspirazio-iturri batzuk adierazi zituzten; esaterako, Paulo Freirereren herri-heziketako korrontek edo marxismoak eragin dituen eta askapenaren teologia inspirazio-iturri duten azterketak (adibidez, Bruno Revesz agraristaren lana, zeinak 40 urtez CIPCAn lan egin baitzuen).


80-90eko hamarkadetako zenbait dokumentutan aipatzen da CIPCAk pertsonen gaitasunen garapena sustatzen duela, beren lurraldeko aldaketa-prozesuen protagonista diren heinean, herri-heziketako gaitasunen ikuspegian oinarrituta. Hala adierazten du Micaela Wetzell-ek (2009) hemen: *Sistematización sobre la Educación Popular de los Centros Sociales Jesuitas en Perú* (SEPSI – Sector Popular de la Compañía de Jesús).

Herri-heziketako erreferenteei dagokienez, CIPCAk adierazten du “herri-heziketa” heziketa-prozesu globalizatzaile bat dela, ezagutza berriak transferitu nahi baititu eta jarrera berriak sortu lan-mailan, maila profesionalean eta praktika sozialean. Horrez gain, herriak behar dituen koiuntura- eta -egitura-alternatibei erantzun nahi die eta beregan konfiantza izateko oinarri berriak finkatu, kontzientzia kritiko bat sortuz (Santuc, 1983:6-8). Gainera, alfabetatze-ikastaroek Freireren kontzientziazio-lerroei jarraitzen zieten. Hala, zonako “hitz sortzaileak” bildu ziren, eta haietan oinarrituta hasi herritarrak alfabetatzen (Santuc, 1983: 9-19).

2010ean, CIPCAk gaitasunak garatzeko bere proposamen pedagogikoa egin zuen. Prozesu horretan, hasieran, eragindako egoera batean edo iraganeko bizipen baten oropenean sartzen da parte-hartzailea, ikasteko abiapuntu gisa (esperientzia zehatza). Gero, parte-hartzaileak esperientzia horri buruzko gogoeta egiten du, banaka edo kolektiboki (behaketa gogoetatsua); hitz egokien laguntzaz haren esanahia aurkitzen du, eta esanahi hura aplikatzen du ondorio logiko bat sortzeko (eraikuntza kontzeptuala). Azkenik, esperientzia zehatz berriak sortzen dituzten antzeko arazoak bizitzen ditu (aplikazio praktikoa), eta, orduan, berriro hasten da ikaste-zikloa. Proposamen horretan adierazten du ikasten duen erakunde baten erronka ikasi duena aplikatzeko duen gaitasuna dela. Ikasitakoa aplikatzen denean baino ezin dugu esan itxi dela esperientzia bidez ikasteko ziklo bat. Askotan, ikasitakoa aplikatzeko, erakundeak bere zuzeneko lanaren mugetatik atera eta eragin politikoan parte hartu behar izaten du, ikasitakoa zirkulu handiagoetara hel dadin eta, azkenik, erantzun nahi dien arazo sozialak konpontzen lagundu dezan.

Aztertutako plangintza- eta ebaluazio-dokumentuek ere —1994-2014 aldikoak— adierazten dute gaitasunen ikuspegi teorikoa modu pixka bat erretorikoan sartu dela eta giza garapenaren indizeak (GGI) masiboki hartu direla eskualdeko, distrituetako eta udalerrietako ongizate-mailak neurtzeko tresna gisa. CIPCAk GGla erabiltzen du (bere bertsio guztietan) ez soilik nazioarteko lankidetzara bereziki zuzendutako proiektuak formulatzeko, baita bere eremu lokaletan eta eskualdekoetan ikertzeko eta eragiteko ere. Hau da, CIPCAk gaitasunen ikuspegitik berarentzat funtzionalena zena hartu du modu estrategikoan, GGla, alegia, eta baliabideak lortzeko nahiz eragiteko erabili du. 2011an, COMPARTE ikasketa- eta ekintza-komunitatean sartu zen CIPCA Latinoamerikako herrialdeetako 14 GGKerekin batera, eta orduan hasi zen erabiltzen gaitasunen

ikuspegiko hizkuntza eta kontzeptu batzuk, giza garapenaren hizkuntzaren tradizioan erabiltzen diren bezala.



Iturria: geuk prestatua, landa-lanean oinarrituta, 2014-2015.

Hiru etapa bereizten dira CIPCAren bilakaeran. Etapa bakoitzean, CIPCAk estrategia desberdin bat landu du, testuinguruko beharrei erantzun nahian — nazioarteko eta estatuko testuingurua barne— bai nazioarteko lankidetzako eskakizunei erantzun nahian eta bai gobernuaren politikei erantzun nahian, zeinen aurrean ispilu baten modura islatzen baita⁸. Plangintza- eta ebaluazio-dokumentuak berrikusita eta elkarrizketak aztertuta, ikusten da etapa guztietan landu direla gaitasunak eta erabili dela metodologiaren konbinazio sofistikatu bat. Baina bi gauza aldatzen dira etapa bakoitzean: CIPCAren helburuak eta zein eragilerekin egiten den lan.

8 “Ispilu” esaten dugunean, esan nahi dugu gobernuen politikek “islatze”-ekintza bat izan dutela aldi bakoitzean, zeina erantzutekoa edo laguntzekoa izan baitaiteke, maila desberdinetan eta ñabardura askorekin. Ispiluak erakusten du aldi bakoitzean CIPCAk zer apustu politiko egin duen. Adibidez, lehenengo aldiak, gobernuak hasitako nekazaritza-erreforma biziki babestu zuen CIPCAk; historian nagusi zen etxaldeetan oinarritutako ereduaren apustu alternatibo bat zen hura. Bestetik, nekazaritza familiarraren alde egiten duen apustuak ere —batetik, fujimorismoak eta, bestetik, gaur egun Perun indarrean dagoen eredu neoliberalak sustatzen duten eredu oso bestelakoa— erakusten du uneko gobernuak bestelako (bereziki zentrala, baina baita eskualdekoa ere) apustu politiko bat egiten duela.

1972-1990 Nekazaritza-erreformari laguntzea eta nekazaritza-interbentzionismoaren gainbehera

Piura eskualdean ondorio nabarmenak izan zituen nekazaritza-erreforma bat ondo garatzen laguntzeko nahiarekin sortu zen CIPCA. Nagusiki nekazaritza-erreformaren onuradunekin jardun zuen etapa honetan; gehienak gizonak ziren, kooperatibatan antolatuak, eta, batez ere, kostaldekoak.

Lan eskerga egin zen helduak alfabetizatzeko, eta “matematika kontzientziatzailea” izeneko programa bat oso ezaguna egin zen. Modu intentsiboan landu ziren gaitasun tekniko eta produktiboak ere kooperatibetan (etxalde izandakoetan); batez ere, arroz-, kotoi- eta arto-laborantzarekin. Ikerketak egin ziren arlo sozial, ekonomiko eta teknikoan.

1980ko hamarkadaren hasieran, zailtasun handiak azaldu ziren nekazaritza-erreformaren prozesuan. Gobernuaren interbentzionismo-maila handia izan zen nekazaritza-sektorean (presentzia handia zuen, esate baterako, nekazaritza-bankuak), baina ez dago argi politika horiek zer orientazio zuten, eta aldi berean gertatzen ari ziren krisien espiral batean sartu zen herrialdea, azkenean lehertu zen arte (“paquetazo” esan zitzaion). CIPCARENTZAT, nekazaritza-erreformaren gainbeherak —zeina nabarmena izan baitzen 1980ko hamarkadatik aurrera— estrategia-aldaketa handi bat ekarri zuen: kooperatibek aktore nagusi izateari utzi zioten, eta nekazaritza-erreformaren banakako onuradunak eta haien familiak pasatu ziren aktore izatera. CIPCA etapa berri batean sartu zen, non fujimorismoaren garaipena eta nazioarteko merkatuetara irekitzea ziren ezaugarri, eta eragin handia izan zuen Peruko landa-eremuarentzat, oro har, eta Piurakoarentzat, bereziki.

1990-2000 Fujimorismoa eta nazioarteko merkatuetara irekitzea

CIPCAk erabat aldatu zuen estrategia. 1980ko hamarkadatik, familiei laguntzen ari zen; garai horretan, “ekoizle” esaten hasi zitzairen (“nekazari” esan beharrean). Fujimoriren gobernuak alde batera utzi zuen estatuak nekazaritza-politikan zuen interbentzionismoa, eta nazioarteko merkatuetara zabaldu zen erradikalki. Orduan, CIPCAk erabaki zuen finantza-laguntza ematea masiboki ekoizle txikiei, eta laborantza tradizionaletan laguntza teknikoa ematen jarraitzen du. Nolabait, estatuak nekazaritzan esku hartzeko estrategia baztertu zuenean utzitako hutsunea betetzen du CIPCAk.

Hamarkada horretan, nekazaritza familiarrari eta nekazaritza txikiari buruz hitz egiten hasi zen CIPCA, eta ahalegin handia egin zuen ekoizle txikien elkarteak indartzeko. Horrenbestez, elkartzeko eta antolatzeko gaitasunak indartu egin ziren; bien bitartean, laborantza tradizional batzuetan (hala nola kotoia eta arrozarenean) gaitasun tekniko-produktiboak lantzen jarraitzen zuten. Langileen trebakuntza akademiko eta profesionalean ere izan zuen isla; ordura arte, nekazaritza-ingeniari ugari zegoen.

Aldi horretan, nazioarteko baldintza berrietara egokitu zen; doikuntza ekonomikoko politikak ohiko bihurtu ziren; erabateko aldaketa izan zen estatu, merkatu eta gizartearekiko harremanetan, eta instituzionalizazio demokratikoa ahuldu egin zen; alderdien sistemak krisia izan zuen; gremioetako erakundeak ahuldu egin ziren; gerra izan zen herrialde barruan; etab. Hori dela eta, jokoaren arauak aldatu egin ziren, eta nekazaritza txikia eta landa-biztanleria eskualdearen eta herrialdearen garapenean integratzeko modalitateen inguruan berriro pentsatu beharra ekarri zuen horrek. CIPCAk garapenaren inguruan duen ikusmoldea eta bere hipotesiak berrikusi zituen, eta nekazaritza txikian jarri zuen arreta: gaitasuna eman zien Chira haraneko, Piura goiko eta Piura beheko ekoizle txikiei, eta haien produktuak merkaturatzeko aukera emango zuten arauak sustatu zituen.

2000-2012 Deszentralizazio-prozesua eta tokiko eta eskualdeko garapena

Hamarkada horretan, CIPCAk apustu argia egin zuen demokratizazioaren, deszentralizazioaren eta tokiko eta eskualdeko garapenaren alde. Ia alde batera utzi zitzaion herritar ekoizleei banaka laguntzeari; ekoizleen elkarteei laguntzearen alde egin zen; bereziki, laborantza berrietakoei (hala nola bananondoa eta kakaoa). Historian lehen aldiz, sistematikoki hasi ziren lanean tokiko gobernuekin eta eskualdekoarekin. Horretarako, parte-hartze sozial eta politikorako gaitasunak indartu ziren, zenbait programa entzutetsuren bidez; adibidez, parte-hartzea bultzatzeko gazteen lidergoa. CIPCAk jarraitzen zuten nekazari-ingeniariei kopurua jaitsi egin zen, eta ekonomiako, negozioetako eta komunikazioko profesionalak kontratatzen hasi ziren. Politika publikoak adosteari, aurrekontu partizipatiboari eta herritarren zaintzari buruz hitz egiten hasi ziren. Genero-ikuspegia kontuan hartuta gaitasunak lantzen ere jardun zuten. Oro har, gaitasun soziopolitikoak indartu ziren, eta gaitasun tekniko-produktiboak lantzen jarraitu zen. Ikerketa teknikoak beherakada izan zuen,

baina mantendu ziren —beharbada arinxego— ikerketa soziala, politikoa eta ekonomikoa.

Hazkuntza ekonomiko handiko garaia izan zen Perun (*commodity* direlako booma) eta Piuran (nekazaritza-industriaren booma). Estatu gero eta presenteko zegoen gobernu-programen bitartez (Pensión 65, errentak baldintzatutako transferentzia-programak), eta gizarte- eta ingurumen-gatazkak ugari egin ziren, mendialdean batez ere.

2012tik gaur egunera arte

Gaitasunak lantzeko mailan, etorkizuneko hausnarketa estrategikoko une batean dago CIPCA. Estatuak landa-eremuetan presentzia handiagoa izatea, eskualdeko nekazaritza-industria eta meatzaritza haztea, gizarte- eta ingurumen-gatazkak eta politika publikoak ezartzeko zailtasunak dira elkarrizketatuek adierazitako kezka batzuk. Ekoizleen elkarrekin, tokiko gobernuekin eta eskualdeko gobernuekin lanean jarraitzen dute, eta eztabaida dago enpresekin eta are estatuarekin berarekin lan egitea komeni den ala ez.

Azken batean, CIPCAk 43 urte daramatza gaitasun-arloan etengabe lanean, estrategia desberdinak eta metodologia dibertsifikatu bat erabiliz, baina ez da zehazten gaitasunen ikuspegi gisa Amartya Sen-en eta GNBPen giza garapenaren tradizio gisa. Aldi bakoitzerako, CIPCA testuingurura egokitu da, eta gaitasunak garatzeko estrategia desberdin baten alde egin du; eragile batzuen edo beste batzuen aldeko apustu handiagoa egin du, eta gaitasun jakin batzuk azpimarratu ditu. Horrenbestez, aldaketak eta jarraitutasunak azaltzen dituzten faktoreek zerikusia dute bai faktore endogenoekin (balioak, apustu politikoa, lidergoa), bai exogenoekin (nazioarteko lankidetzak, estatuaren politikak, aukerazirik gabeko aprobetxamendua), eta garai historiko bakoitzean botereen aurrean posizionatzeko lan zailarekin.

2. Taula. CIPCAk aldi bakoitzean egindako apustu politikoa

Identifikatutako aldi bakoitzean CIPCAk egindako apustu estrategikoa: gaitasun eta eragile lehenetsiak		
Zer apustu estrategikoa?	Zer gaitasun?	Zer eragile?
	1972-1990	
<ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza-erreformari laguntzea - Kooperatibak eta nekazariak, oro har, ahalduntzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizkoak (alfabetizazioa) - Tekniko-produktiboak 	<ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza-erreformaren (kooperatiben) eta landa-komunitateen onuradunak
	1990-2000	
<ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza txikia eta nekazaritza familiarra sustatzea eredu neoliberalaren aurrean - Erresistentzia fujimorismoari - Plangintza eta udal-kudeaketa hitzartua 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekonomiko-administratiboak - Elkartzeko- eta partaidetza-gaitasunak - Soziopolitikoak 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizle-familiak eta ekoizle-elkarteak
	2000-2012	
<ul style="list-style-type: none"> - Demokratizazio- eta deszentralizazio-prozesuan laguntzea - Nekazaritza familiarra (bananondoa eta kakao organikoa), elikagai-segurtasuna, ekonomia solidarioa - Tokiko eta eskualdeko garapenaren kudeaketa hitzartua 	<ul style="list-style-type: none"> - Soziopolitikoak - Tekniko-produktiboak (ekoizpen organikoa eta merkatuak) 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte zibileko erakundeak - Erabakitze-guneak - Ekoizleen elkarteak

Iturria: geuk prestatua, landa-lanean oinarrituta, 2014-2015.

5. IMCAren esperientzia

Instituto Mayor Campesino (IMCA) erakundeak Cauca haranean lan egiten du, Kolonbiako hego-mendebaldean, eta landa-garapena eta eskualdekoa sustatzen. Jesusen Lagundiak sortu zuen, 1962an, “Universidad Campesina” izenarekin, eta xede hau zuen: trebakuntza integrala (soziala, politikoa, produktiboa, espirituala) ematea Cauca haraneko nekazariei. Kolonbiako landa-eremuan gorabehera handiak eta tentsio ugari zeuden testuinguru politiko batean sortu zen, Kubako iraultzaren moduko bat gain-gainean eta indarkeria nagusi zela⁹.

Badira 50 urte baino gehiago sortu zela, eta, denbora-tarte horretan, ikerketa (teorikoa eta, funtsean, aplikatua) egin du; gaitasunen garapenean jardun du era guztietako trebakuntzen, lantegien, mintegien eta ikastaroen bidez; mikrofinantziazioa eman, eta ekoizleei eta elkarteei lagundu die; nekazarien erakundeak eta ekoizle txikienak indartzen jardun du, eta, azkenaldian, tokiko eta eskualdeko esku-hartzeak egin ditu Cauca haranean. Bereziki garrantzitsuak dira IMCAk agroekologia sustatzen izan duen rola eta 1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera ekoizpen-eredu horren alde egin duen apustu politiko argia.

Beraz, CIPCArentzat bezala, 50 urteko baino gehiagoko lana da, alor askotakoa eta ñabardura askokoa, non norbanakoen gaitasunen eta gaitasun kolektiboen garapenaren lan jarraitu bat ikus baitaiteke. IMCAren inspirazio-iturria, ordea, ez da giza garapenaren tradizioko gaitasunen ikuspegia.

Landa-azterketan, elkarrizketan eta dokumentu-ikerketaren bidez, doktrinazko beste iturri batzuen eragina agertu zen, hala nola Paulo Freire-ren herriheziketaren korrontek. 1990eko hamarkadatik aurrera, pisu handia hartu zuten


9 Indarkeriaren dinamiken testuinguru eta ikerketa on baterako, ikusi Kolonbiako Memoria Historikoaren Zentroak duela gutxi kaleratutako argitalpena. (2014). *Patrones y campesinos: tierra, poder y violencia en el Valle del Cauca (1960-2012)*.

jasangarritasunaren aldeko korronteeak, eta, 2000ko hamarkadan, agroekologiaren aldeko apustu argia egin zen. Aztertutako plangintza- eta ebaluazio-dokumentuek ere —1994-2014 aldikoak— adierazten dute gaitasunen ikuspegi teorikoa modu pixka bat erretorikoan sartu dela, eta giza garapenaren indizeak (GGI) eskualdeko, udalerrietako eta korregimentuetako ongizate-mailak neurtzeko tresna gisa hartu direla.

CIPCAk bezala, IMCAk ere GGla erabiltzen du (bere bertsio guztietan) ez nazioarteko lankidetzara bereziki zuzendutako proiektuak formulatzeko soilik, baita bere eremu lokaletan eta eskualdekoetan ikertzeko eta eragiteko ere. Hau da, gaitasunen ikuspegitik berarentzat funtzionalena zena hartuz joan da modu estrategikoan, GGla alegia, zeina baliabideak lortzeko nahiz eragiteko erabiltzen baita. CIPCA bezala, 2010etik aurrera hasi ziren, COMPARTE ikasketa- eta ekintza-sarea sortzearekin batera (Latinoamerikako 11 herrialdeetako gizarte-zentro batzuk biltzen ditu), gaitasunen ikuspegia duen hizkuntza propioa txertatzen.

Hiru etapa bereizten dira IMCAren bilakaeran. Etapa horietako bakoitzean, IMCAk estrategia desberdin bat landu du, hauei erantzun nahirik: bai testuinguru-behar desberdinak, barnean direla nazioartekoa, nazionala eta tokikoa, bai nazioarteko lankidetzaren eskakizunak (eta modak). Halaber, gobernuaren politika batzuen ispilu gisa jardun du. Etapa guztietan, gaitasunak landu dira (bai banakakoak, bai kolektiboak), eta metodologia-konbinazio sofistikatu bat erabili da; IMCAren helburuak eta orientazioa aldatu egiten dira, ordea, etapa bakoitzean, bai eta lanean aritzeko eragile nagusiak ere. Orobat, IMCAren lanean eragin handia izan du indarkeria-egoerak eta, bereziki, 2000ko hamarkadaren hasieran IMCAk zuzenean esku hartzen zuen eremu batzuetan geratu ziren sarraskiek eta desplazamenduek.

3. Irudia. Nola landu ditu IMCAk gaitasunak?



Iturria: geuk prestatua, landa-lanean oinarrituta, 2014-2015.

1962-1992 Nekazarien Unibertsitatea

Nekazarien unibertsitate gisa sortu zen IMCA, egoera politiko oso gorabeheratsu batean. Sortu zenetik, asko lantzen dira gaitasunak: orokorrenak (erretorika, matematika), soziopolitikoagoak eta lidergoari lotutakoak (parte-hartzeari lotuagoak) eta tekniko-produktiboak. Denbora-tarte zabal horretan, ikerketa ere dezente egin zen, bai teorikoa, bai aplikatua. Nekazaritza-zientziek protagonismo handia izan zuten, eta abeletxe espermental bat finantzatu zen. Garai hartako helburua nekazari liderrak trebatzea zen, eta nekazari hauek zuten horretarako lehenasuna: teoria eta praktika konbinatzen zituzten metodologiak erabiltzen zituzten “unibertsitatean” edo institutuetan trebatutakoek (oro har, gizon gazteek).

1992-2006 Jasangarritasuna eta agroekologia familia-arloan eta tokiko eremuan. Sarraskiak eta desplazamenduak

1990eko hamarkadaren hasieran, nabarmen aldatu zen IMCAren lanaren norabidea. Aurreko urteetan ere garrantzitsua izan zen ekologia-arloan egindako lana, baina, aldi honetan, IMCAk finkatu egin zuen jasangarritasunaren aldeko apustua eta, bereziki, agroekologiaren aldekoa. Gaitasun ekonomiko-produktiboak garatzen jarraitu zuten, baina aldatu egin ziren estrategia eta

lehentasunezko subjektua. “Unibertsitate” (barnetegia) deituriko eredia gainditu zen, eta lortu nahi zen tokian bertan esku hartzea familiekin; laguntza intentsiboa ematen zitzaien, ia pertsonalizatua, IMCAk zuzenean esku hartzen zuen eremuetan. Modu intentsiboan hasi ziren lantzen emakumeekin gaitasun tekniko-produktiboak (adibidez, baratze familiarretan eta animalia txikiekin) eta antolatzeke eta parte hartzeko gaitasun batzuk. Abeletxe esperimentala galtzeak eragina izan zuen ikerketan (batez ere, teknikoan, aplikatuan eta esperimentalean). Antolatzeke gaitasunak ere landu zituzten, eta laguntza pertsonalizatua eman zitzaien kafe organikoaren ekoizle-elkarte batzuei, zeinak bidezko merkataritzan sartu baitziren. 1991n konstituzioa onartzearen ondorioz, norabide berri batean hasi zen IMCA parte-hartze soziopolitikoko gaitasunak lantzen; nekazarien elkarte eta taldeetan parte hartzeko gaitasunak lantzeaz gain, arlo instituzionalari buruz hitz egiten hasi ziren.

1999. eta 2000. urteak lazgarriak izan ziren IMCArentzat: sarraski batzuk bizi izan zituzten zuzenean esku hartzen zuten eremu batzuetan, eta, horren ondorioz, herritarren desplazamendu masibo bat izan zen, laguntzen ari ziren prozesuak eten egin ziren, eta, nolabait, atzerakada bat izan zen arlo humanitarioan; IMCAk sustatzen zituen gaitasunen lanketan ere eragin zuen horrek, eta, are gehiago, familien ogibideetan.

2006-2014 Tokiko eta eskualdeko jasangarritasun-programa

2006an, aldaketa handi bat izan zen IMCAren ibilbidean. Tokiko eta eskualdeko jasangarritasun-programari ekin zioten, eta eragin handia izan zuen IMCAren gaitasunen lanean. Eskalaren dilemak sortutako kezka handiaren eraginez sortu zen programa, eta hala zehaztu zen landa-lanean kontsultatutako dokumentuetan; ogibideen literaturaren (kritikoaren) klasiko bat ez ezik, baita agroekologiaren egileena ere. Hala, tokiko eta eskualdeetako arlo instituzionaletako eragin politikoko lanari irmo heltzeko erabakia hartu zuen IMCAk. Horrek eragina izan zuen gaitasunetan, subjektuetan eta erabilitako estrategian: arlo instituzionaletan parte hartzeko gaitasunak landu ziren, modu sistematiakoago batean hasi ziren lanean tokiko gobernuekin (eta, gai batzuetan, departamentukoarekin), tinko eutsi zitzaion berriro lidergo-gaitasunen lanketari (landa-eskolaren bidez, 2004-2007). Oso lausotuta geratu ziren ikerketari (batez ere, esperimentalari) lotutako gaitasunak eta gaitasun tekniko-produktiboak. Aurreko aldiko ekoizle-familiak eta -elkarteak urrundu egin ziren pixkanaka. IMCAren norabide-aldaketa hori,

batzuetan, modu traumatikoan bizi izan zuen bai erakundeak berak, bai familiek, martxan zeuden prozesu batzuk eten egin baitziren. Arlo instituzionaletan eragin politikoa eta soziala izateko bide gogorrari ekin zitzaion, eta, gerora, berriro heldu zitzairen aurreko faseetako gaitasun tekniko-produktiboen lan batzuen lanketari eta ekoizle-elkarteentzako laguntza pertsonalizatuari.

Gaur egun, erakundeak irmo eusten dio agroekologiaren eta tokiko eta eskualdeko jasangarritasunaren aldeko apustuari, eta bere buruari galdetzen dio ea zer muga dituen gizartean eta eskualdean eragiteko lanak. Bestalde, eztabaida dago egoerak zer aukera (eta arrisku) berri ekarriko dituen, 2013ko nekazaritzako geldialdiaren eta Habanako elkarrizketen ondoren.

Azken batean, 50 urte eman ziren etengabe gaitasunak lantzen, hala zehaztu gabe eta gaitasunen berariazko teoria baten inguruan egituratu gabe. IMCaren lanak tokiko, nazio mailako eta nazioarteko egoeraren bilakaera islatzen du, eta gobernuaren eta eragile pribatuen politiken ispilu bat ere bada, hemen erakusten dugun taulan laburbiltzen den bezala.

3. Taula. IMCAK aldi bakoitzean egindako apustu estrategikoa

Identifikatutako aldi bakoitzean IMCAK egindako apustu estrategikoa: gaitasun eta eragile lehenetsiak		
Zer apustu estrategikoa?	Zer gaitasun?	Zer eragile?
	1962-1992	
<ul style="list-style-type: none"> - Erreformismo moderatua - Nekazarien erakundeak eta nekazari liderrak ahalduntzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizkoak (alfabetizazioa) - Tekniko-produktiboak - Soziopolitikoak 	<ul style="list-style-type: none"> - Nekazari liderrak - Nekazarien erakundeak - Familiak
	1992-2006	
<ul style="list-style-type: none"> - Jasangarritasuna eta agroekologia - Subiranotasuna eta elikadura-segurtasuna 	<ul style="list-style-type: none"> - Tekniko-produktiboak - Antolaketakoak 	<ul style="list-style-type: none"> - Nekazarien familiak - Elkarateak - Mikro mailako lana
	2000-2012	
<ul style="list-style-type: none"> - Eredu agroekologikoa sakonago aztertzea - Nekazaritza familiarra 	<ul style="list-style-type: none"> - Antolaketakoak - Soziopolitikoak 	<ul style="list-style-type: none"> - Herri Ekintzen Biltzarrak - Tokiko gobernauak - Meso eta makro mailetako lana

Iturria: geuk prestatua, landa-lanean oinarrituta, 2014-2015.

6. Bizibideak eta gaitasunak: zenbait aurkikuntza¹⁰

Ezin da bizibideez hitz egin jendearen egoerari erreparatu gabe, aurrera egiteko eta beren premiak asetzeko gizon-emakumeek eta familiek egiten dutenari begiratu gabe. Baina ez dago ulertzerik jendeak aurrera egiteko egiten duena ez badakigu nondik abiatzen diren eta halako familiak halako lekutan zer historia izan duen. Halaber, ezin da ulertu zenbaiten ibilbidea ez badira aztertzen testuingurua, merkatuaren indarrak, estatuen politikak eta ingurumen-aldagaiak, zeinek areagotu edo mugatu egiten baitituzte bizibidea aukeratzeko jendearen eta familien aukerak.

Azken hogeitun urteotan CIPCaren eta IMCaren esku-hartze gutxi asko jarraiturik egon den lekuetan sei hilabetez egindako bisitek eta elkarrizketek erakusten dutenez, egitura-izaera sendoko bi prozesu garrantzitsu ari dira garatzen, aldi berean biak: aldaketa demografikoak populazioan (oro har, eta landa-eremukoan batik bat), eta landa-eremuko jardueren eta diru-iturrien aniztasunaren egiaztapena. 1990eko hamarkadako azken urteetatik aztertu eta jaso dituzte joera horiek, Latinoamerikan batez ere, Anthony Bebbingtonek (1999, 2000) eta Cristóbal Kayk (2006, 2009).

Datuen eta elkarrizketen azterketa xehatuago bat egin eta datuak erroldekin alderatu zain betiere, zenbait gauza baieztatu daitezke; besteak beste, Kolonbian beren etxaldeetan elkarrizketatutako jendearen batez besteko adina 50 urte zela, eta familietako kide asko hirian eta landa-eremuan bizi direla, txandaka, behin-behingo. Landa-lana egiteko bisitatu ziren zortzi eskualdeetan, antzeko ereduak jarraitzen zuten familia-dinamikek: senar-emazteek (helduak) bizileku egonkor dute etxaldea, eta nekazaritza- eta zaintza-lanez arduratzen dira; gazteagoak,

¹⁰ Behin-behinekoak dira aurkikuntza horiek, 2014ko urritik 2015eko apirilera bitartean Perun eta Kolonbian jasotako datuen eta egindako azterketen lehen irakurketaren emaitza. Argitalpen honek oinarri duen doktore-tesia amaitzean, handitu, aldatu eta osatu egingo dira aurkikuntza horietako batzuk.

berriz (gizon zein emakume), lekuz aldatzen dira, ikasketak edo lana direla medio, eta, tarteka, nekazaritza-lanetan laguntzen dute.

Behin-behinekotasunari eta zuhurtziari jarraikiz betiere, elkarrizketatutako familia askotan bilakaera hau izan dute bizibideek: jarduera nagusia nekazaritza izatetik eta nekazari-ikuspegitik jardutetik, familiako kide batzuk beste batzuentzat hasi dira nekazari-lanak egiten (jornalari-lanetan, Kolonbiako landa-eremuan; soldatapeko langile gisara, Peruko nekazaritzako industrian), epe gutxi-asko luze edo laburrez, edo hiriko zerbitzu-alorrean. Berriki, gobernu-programek ere esku hartu dute sektore horretan (errenta- edo pentsio-transferentzia baldintzatuak¹¹).

Nekazaritzari buruzko egungo ikerketek aztergai dituzte landa-eremuko populazioaren aldaketa demografikoak eta jarduera-aniztasuna. Horren adibide aipagarria dugu Alejandro Díezen (2015) “Estrategias de vida, cambios en la tenencia de la tierra y cambios demográficos en el mundo rural” (Bizi-estrategiak, lurraren jabetza-aldaketak eta aldaketa demografikoak landa-eremuan), non hau dioen: “Landa-eremuko populazioaren portzentaje handi baten bizileku bikoitza izateko joera eta ‘bi hankako’ estrategiak egonkortzen ari dira” (Díez, 2015:44).

Egiturazko bi aldagai horiek eraten dute, bada, argitalpen hau oinarri duen galdera nagusiari erantzuteko testuingurua: bizibideen eta gaitasunen arteko lotura, edo, zehazkiago, ekonomia- eta ekoizpen-alorrean GGKEek bultzatzen dituzten gaitasunen eta familien bizibide-estrategietan duten eraginaren artekoa.

Lehenik eta behin, egiaztatu da nekazaritzaren ikuspegitik jardun direla CIPCA eta IMCA, argi eta garbi, IMCA ekonomia- eta ekoizpen-gaitasunak jorratzen. Alegia, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorean ekoizpen-jarduerak sortu, hobetu edo garatzeko gaitasunak jorratu dituzte. Aldiz, apenas jorratu dituzten industria-alorrerako gaitasunak; bestalde, ez da ia ezer egin “soldatapeko lanaren edo enpleguaren” eremuan, ez landa-eremukoan ez bestelakoetan. Zerbitzuen arloko gaitasunei dagokienez, berriz, aipatzekoa da Piurako Emakumeen Sustapen Enpresarialeko Funtsa (FOPROM), zeinak negozio txikiak sortzen laguntzen dien emakumeei.

11 Aipatzekoak dira Peruko Pensión 65 programa eta Kolonbiako Adulto Mayor programa, biak ere pobrezian bizi diren adineko helduei zuzenduak.

Bestalde, bi helburu zituen landa-eremuko ekoizpen-gaitasunak jorratzeak: autokontsumoa eta diru-sarrerak. Kolonbian nabaritu da gehienbat hori (IMCA), non elikaduraren segurtasunaren eta burujabetzaren aldeko luzarorako estrategiak aplikatzen ari diren. Landa-lanak erakutsi duenez, gaitasun eta ezagutza gehiago eskuratu dituzte IMCArekin harreman estuena izan duten familiek (emakumeek, batez ere) zenbait alorretan (baratze familiarrak, animalia txikien gobernatzea eta merkaturatzea); horrez gain, autonomia handiagoa dute emakume horiek beren familian, eta lidergo handiagoa tokiko beren jarduera-alorretan. Perun ere nekazaritza familiarren sustapena izan du ardatz lanak, baina ez die horrenbesteko arretarik egin baratzeei eta animalia txikiei. Bestalde, kontzientziazio handiagoa nabari da, eta familien gidaritza sendoagoa (CIPCAren laguntza medio, betiere), eta ez da ikusten, Kolonbian ez bezala, generoaren araberako alde hori nekazaritza-arloko ekoizpen-gaitasunetan. Nabari da, halaber, genero-alderdirik bi erakunde horien gaitasunak garatzeko estrategietan: Peruko emakumeei dagokienez, mikronegozioen alorrean jorratu dira haien gaitasunak (zerbitzu-sektorean, batik bat); Kolonbiako emakumeek, berriz, elikadura-burujabetza- eta -segurtasuna, baratzeen eta animalia txikien merkaturatzearen bidez.

Honenbestez, bi fenomeno plazaratzen ditu, behin-behingo, gaitasunen eta bizibideen arteko loturaren azterketa zehatzago batek. Batetik, ez da berehalakoa izaten gaitasun produktiboen eta bizibide-estrategien aldaketa *esanguratsuen* arteko lotura. Egiturazko faktoreak izaten dira tartean. Alegia, askoz ere eragin handiagoa izan dutela familien bizibideetan merkatuko indarrek eta gobernuen politikek GGKEen ekimenek baino. Landa-lanean bisitatutako zortzi eremuetatik, ezta batean ere ez da atzeman aldaketa aipagarririk familien bizimoduan, ez behintzat GGKEen esku-hartzeari zor zaionik (labore, ekoizpen-sistema, teknika berriak, etabar). Aitzitik, bizibideetan aldaketa esanguratsuren bat izan bada, enpresa handiek eragin izan dituzte (nekazaritzako industriaren sektorekoek, adibidez), edo banana organikoaren inguruan (adibidez) sortutako negozio-aukerek. Atzematzen da, ordea, hobeto aprobeztatzen dituztela baldintza horiek familiek eta elkarteek, gaitasunen garapenari eta GGKEen laguntzari esker, hein handi batean. Izan ere, gaitasunen garapenak aukera ematen du hobeto aprobeztatzeko inguruneak eskaintzen dituen bizibide-estrategia berriak, baina ez du egiturazko indar nahikorik aukera horiek sortzeko.

Alabaina, eragina du garapen horrek familien kontzientziazio politikoaren mailan eta haien lidergo-ahalmenean, hau da, familien mundu-ikuskeran eta beren komunitate politikoan duten eginkizunean. Aztergai dago, dena den, lotura hori

estrategia planifikatu baten emaitza den, edo esku-hartze baten “espero gabeko ondorioak”. Bigarren hipotesi horren aldekoak dira Frediani, Boni & Gasper (2014), zeinek hau baitiote: “Ondorio guztiei erreparatu behar zaie, ez bakarrik esku-hartzeak jendearengan eragitea espero ziren haiek”.

“Nire ustez, lagundu egin dute GGKEek eskolaz kanpoko heziketa (informala) ematen herrietako jendeari eta buruzagiei... GGKEen eragin nagusia ez da sortu duten inpaktua, eratu duten ingurunea baizik... Bistakoa da... Ez dira nahita eragindako aldaketak... Lidergoak eta ezagutzak sortzen dira. Ingurune bat sortzen da”.

Elkarrizketa: #60-PERU

Bestalde, bai Kolonbian, bai Perun, nahiko garbi ikusten da bizibide egonkorragoak dituztela alderdi ekonomiko eta produktiboetan laguntza handiagoa jaso duten familiek; badirudi, dena den, abiapuntua ere hobea zutela familia horiek. Aktiboek dagokienez, batez ere lurraren jabetzari (laborantza-erreformaren onuradunak dira Peruko familia gehienak, eta kafe-sail txikien jabeak Kolonbiakoak). Horrez gain, familia-egitura egonkorragoa ere bazuten. Alderdi diskurtsiboari gagozkiola, kontzientziazio-maila handiagoak nabari dira nekazaritza txikia, asoziazionismoaren premiaz eta agroekologiaren garrantziaz. Bizibide-estrategiei dagokienez, berriz, garrantzi handia dute jarduera-aniztasunak eta diru-sarreraren dibertsifikazioak. Bi familia-multzo horietan erabiltzen dira “bi hankako estrategiak” (bai CIPCaren eta IMCaren laguntza jaso dutenetan eta ez dutenetan), eta bigarren multzoan nabari da gehien nekazaritzako enpleguarekiko mendekotasuna bizibide-estrategian; lehen familia-multzoan, aldiz, diru-sarreraren dibertsifikazioa metatze-estrategia baten ondorio dela ematen du, kasu guztietan hala ez bada ere.

Hona bi familia-multzo horien arteko alde aipagarri bat: familiako kide bakoitzak eremu publikoetan, instituzionaletan eta elkarteetan duen partaidetza-maila. Eremu horietan eztabaidatzen da zer garapen-eredu izan behar duten herriek, eta lorpen handi bat egin da: Piurako eta Caucaren haraneko herriko eta eskualdeko agenda politikoetan txertatu dituzte nekazaritza familiarraren eta agroekologiaren gaiak (azken hori, Kolonbian gehienbat). Aipatutako bi GGKEek nekazarien lidergoaren sustapenean eta sendotzean izan duten garrantzia behin eta berriro azpimarratzen da GGKEetako eta sektore akademikoko jendeari egindako

elkarrizketetan. Ikusi besterik ez dago mugimendu sozialetako buruen ibilbide profesionala eta politikoa, edo herri eta eskualdeetako gobernuetako koadro politiko eta profesional askorenak, zeinetatik askok izan baitute harremana CIPCArekin eta IMCArekin, edo haien bidez trebakuntza jaso dute. Hori da, hain juxtu ere, landa-lanean gehien errepikatzen den ideia: GGKEek egin duten lana (funtsezkoa) inguruneko gizarte-erakundeen antolakuntza-, partaidetza- eta lidergo-gaitasunak areagotzeko. Gaitasunen garapenez edo areagotzeaz ez ezik, CIPCA eta IMCAren laguntzaile-lana ere maiz aipatzen da, erakunde eta elkarteen zerbitzura jarri baitituzte beren ezagutza, harreman eta azpiegiturak, era guztietako ekitaldiak antola ditzaten: jardunaldiak, trebakuntza-saioak, etab.

“Hona nire iritzia: GKEengatik ez balitz (landa-eremukoengatik, batik bat), askoz ere larriagoak izango ziratekeen Kolonbiako gatazkak, eta izugarriko hondamendia eragingo zuketzen estatuaren estrategiek nekazarien artean... Zergatik, ordea? Zer egin dute, bada, GKEek? Gaitze-programak garatu dituzte GKEek, kredituei laguntzeko funtsak sortu, aholkularitza eta laguntza eskaini diete nekazari-familiei, indigenei eta afrikar jatorriko herritarrei; estatuak inoiz egin ez duena egin dute, alegia. Horrez gain, nekazarien antolakuntza sustatzeko hezkuntza-programak egin dituzte, eta zenbait hamarkadaz eutsi diote laguntza horri. Estatuak egin behar zukeena (eta sekula egin ez zuena) GKEek egin dute. Estatuaren utzikeria ez zen borondate faltak eragina: beste helburu batzuk zituen. Azkenik, nekazarien erresistentzia- eta askapen-jardueretan ere nabarmena izan da GKEen laguntza”.

Elkarrizketa: #55-KOLONBIA

CIPCA eta IMCArekin lan egiten duten eta ez duten familien arteko beste alde aipagarri bat hau dugu: bidezko merkataritzako jardueretik atxikimendu-maila. Bi adibide aipatuko ditugu: kafearen sektorea (Kolonbia) eta banana organikoarena (Peru). Ikerketa egin zen garaian (1994-2014), gora egin zuen bidezko merkataritzak bi herrialde horietan, eta, ondoren, behera. GGKEen laguntza jasotzen zuten familiek txertatu zuten beren bizi-estrategian bidezko merkataritza, eta jarduera hori bere gorenean zebilela, areagotu egin zituzten diru-sarrerak, “prima” edo “gainprezioei” esker, batik bat¹²). Alabaina, oso

¹² Bestalde, prima edo gainprezio bat kobratzen dute ekoizleek zenbait baldintza betetzearen truke. Azken kontsumitzaileak ordaintzen du prima hori, elkartasun-sari edo -bonu gisara.

balorazio kritikoa egiten da bidezko merkataritzako elkarteen gaitasun-gabezia batzuez (finantza-jarraipena egiteko, elkarteen eguneroko kudeaketa administratiborako eta testuinguru-aldaketetara egokitzeko gaitasun gabeziak). Ezin aipatu gabe utzi DOLE enpresa multinazionalaren esku-hartzea, hau da, Piuran laborantza organikoa eta bidezko merkataritza kudeatzeko behar ziren gaitasun teknikoak eta produktiboan transferentzia. Landa-lanak frogatu duenez, batez ere DOLERi eta gobernuaren programa batzuei esker sortu eta transferitu ziren ekoizle txikiak banana organiko ziurtatua ekoizteko eta esportatzeko behar zituzten gaitasun teknikoak. GGKEen esku-hartzea ere funtsezkoa izan zen, antolakuntzari eta politikari dagokienez batik bat. CIPCari eta nazioarteko lankidetzari dagokienez, autoantolakuntza eta asoziazionismoarako gaitasunak sustatzeko egindako lana balioetsi zaie gehienbat (kasu honetan, bigarren mailakoa zen asoziazionismoaren garrantzia). Bi faktore horiei esker, hautsi egin zen, hasieran, banana organikoa erosteko enpresak zeukan monopolioa, eta elkarte batzuek beren kasa esportatzeari ekin zioten.

Kontuan izateko moduko beste datu bat: bai Perun, bai Kolonbian, gutxiago hartzen dute parte ekoizle-elkarteetan eta tokiko eginkizun publikoetan GGKEekin lan egin ez duten familiek. Eszeptikoagoak dira familia horiek asoziazionismoarekiko eta, oro har, partaidetzarekiko. Hezkuntza-maila handiena, ekoizpen aktiboena eta diru-sarrera dibertsifikatuenak dituzten familiek daukate, hain juxtu ere, protagonismo eta lidergo handiena elkarte horietan. Argitzeke dago, bestalde, zer eragin izan duten GGKEek hezkuntza, aktibo eta protagonismo handiena duten familia horien sendotze-prozesuan.

“Asoziazionismoa da oztopo nagusia. Luzaroan engainatu ditu egiturazko mesfidantza izugarri horrek. Indibidualismoa, norbera bereaz bakarrik arduratzea, hori da nagusi. Arrazoi askok eragina izan daiteke: erakunde publikorik ezak edo haien eskasiak, klientelismoak, estaturik eta eskubiderik ezak... Sustrai sakonak ditu indibidualismoak gure historian”.

Elkarrizketa #1-PERU

Aipa dezagun, azkenik, gaitasun-garapenak alor psikologikoan, xedean, nortasunean eta bizibide-estrategian izan duen garrantzia. Lehendik ere esan dugunez, genero-ikuspegidun proiektuen bidez txertatu dira gehienbat

gaitasunak alor psikologikoan. Nagusiki emakumeei zuzenduak dira proiektu horiek. Gehiago irauin dute xedearekin eta nortasunarekin lotura duten gaitasunek, zeinek harreman estua baitute GGKEetan jesuitek duten partaidetzarekin, lan pastoralarekin eta kultura-sustapenarekin. Bi alor horietako ezagutzen, jarreraren eta, azken batean, gaitasunen garapenaren helburua ez zen berehalako eragina izatea jende, etxe eta herrietan; epe luzeagoko ikuspegia zuen. Elkarrizketatutako familien adierazpenek, aldiz, beste zerbaitegatik balioesten dituzte gaitasun horiek, batzuetatik besteetara alderik badagoen arren: pertsonaren eta familiaren ongizatean duten eraginagatik, eta komunitate handiago bateko partaide izateari ematen dioten garrantziagatik. Horrez gain, zeharka, beste honegatik ere balioesten dituzte familiek gaitasun horiek: osasunean eta autoestiman duten eraginagatik. Izan ere, funtsezkoak dira bi aktibo horiek pertsona ororen bizibide-antolakuntzarako.

“Autoestimaren garrantzia azpimarratu nahi nuke. Arazo sakona da, norberaren balorazioa baitago tartean, baina taldean ere jorra daiteke; adibidez, beren garaipentxoak ospatzen eta beste batzuekin alderatzen hasten diren ekoizle-komunitateetan. Bestelako kontua da emakumeen autoestimua, eta gutxiago jorratu da. Gogoan dut proiektu bat non 30 urteko emakume batek zera esan zidan, jarraitu egin nahi zuela, gaia gobernagarritasuna izan arren, horri esker jendaurrean hitz egitean ikasi baitzuen”

Elkarrizketa #15.PERU

7. Zer ikasi dugun

“Bidea ibilian egiten” dela dio esaerak, eta ez da gezurra, nonbait; izan ere, ikasteko, ez dago eskarmentua bezalakorik. Baina eskarmentu hutsa ez da aski. Horren adibide ditugu CIPCA eta IMCA erakundeak, zeinek 40 urtetik gora baitaramate gogor lanean gaitasunak sustatzen, bakoitza bere herrialdean. Ibilbide luze hori (arrakastak eta porrotak, ondo egindakoak eta hutsegiteak) ez da kasualitatearen eta boluntarismoaren emaitza: testuinguruaren premietara etengabe egokitzearen ondorio da, egoera behin eta berriro aztertzearen eta planak ekintza zehatz eta egingarri bihurtzeko ahaleginaren fruitu. Baina, testuingurura egokitzeaz gain, besterik ere egon da ibilbide horretan: gizartea aldatzeko teoria bat, gizakiak eta egiturak eraldatzeko asmo bat. Teoria eta asmo horiek izan dituzte oinarri bi GGKEen esku-hartzeek. Ez da beti esplizituki azaldu teoria hori eta ez da gaitasun-ikuspegiaren araberakoa; hala eta guztiz ere, herri-hezkuntza, Elizaren gizarte-doktrina eta San Ignazioaren espiritualtasuna ditu elikadura-iturri. Hala, bada, beharrezkoak dira praxia, eskarmentua eta egokitzen jakitea, baina ez aski. Izan ere, beharrezkoak dira oinarri teoriko sendoak ere (eta instituzionalak), ekintzaren norabide jakin bat erakutsiko dutenak. Gure ustez, bai IMCAk, bai CIPCAk bazituzten oinarri horiek.

Bilakaera dinamikoa izan dute bi GGKE erakunde horien estrategiek eta gaitasun-garapenaren alorrean egiten duten lanak. Hona zer frogatzen digun horrek: gaitasunen garapena ez dela jardun abstraktua, ez eta estatikoa ere. Faktore askok izan dute eragina GGKE horien gaitasun-garapeneko jardueren norabidean; hauek, batez ere: estatu-politikek, nazioarteko lankidetzaren politikek, tokiko eta eskualdeko testuinguruaren azterketek, eta identifikatutako garai bakoitzean hautatu den politika alternatiboak. Erakundeen oinarri doktrinalei loturik dago politika alternatiboaren aldeko jarrera, hau da, egitura-faktoreek, exogenoek, eratzen dute erakundeen jardura-eremua. Oinarri doktrinalak izan dira ekintza bideratu duten faktoreetatik endogenoenak; testuinguruaren etengabeko azterketak, berriz, aukera aldetik zeuden arrakalak atzematen lagundu du, eta

nazioarteko lankidetzaz izan da, azkenik, aukera-arrakala horiek aprobetxatzen lagundu duen faktore exogenoa. Faktore horiek guztiek baldintzatu dute, bada, erakundeen lana.

Ez da lan erraza izan, indarkeriaren, globalizazioaren, klima-aldaketaren eta egiturazko beste faktore batzuen eragina jasan duten testuinguru ahul eta ezegonkorak direlako, batez ere. Gainera, faktore horien gaineko kontrolik apenas dute. Peruko kostan, oso garbi ikusten dira globalizazioaren ondorioak gaitasunak garatzeko CIPCAk egindako lanean. Garbi ikusten da, halaber, indarkeriak IMCAren lanean izan duen eragina. Nahasmendu eta ezinegon handiko garaiak ari dira igarotzen bi erakundeok, eta kanpotik jasotzen duten laguntza instituzional eta solidarioa dute egoera hori gainditzeko baliabide nagusia, estrategien egokitzearekin batera. Izan ere, kanpoko laguntzarik gabe, oso zaila bihur daiteke ingurune horietan estrategiak birbideratzeko ahalegina.

Gaitasunen garapen osoa bultzatu dute bi erakundeok, hiru mailetan (pertsonek eta familia, erakundea eta sistema) eta lau eremuetan (fisikoa eta materiala, politikoa eta soziala, psikologikoa, eta xedea eta nortasuna). Alde handiak daude, alabaina, maila eta eremu bakoitza jorratu den intentsitateen artean, garai historikoen arabera betiere. Hasieran, gehiago nabarmentzen zen alor fisiko eta materialeko lana pertsona-familia-erakundea eremukoa baino. Ondoren, ordea, geroz eta garrantzi handiagoa hartuz joan zen alor politikoa eta soziala, eta ingurunearen aldagaia ere txertatzen hasi zen (tokiko eta eskualdeko erakundeak barne). Alderdi psikologikoa, berriz, berrikiago jorratu da, genero-ikuspegiaren eragin handia duten proiektuen bidez. Xedearen eta nortasunaren eremua etengabe jorratu da, baina bigarren mailako gisara. Ekimen pastoralak eta kulturalak arduratu dira gehienbat arlo horretaz. Itxura guztien arabera, ikuspegi osoak, integralak dira egokienak gaitasunak garatzeko. Garrantzi berezia du horrek estrategiak eta proiektuak aurrera eramateko jakintza-alor ugaritako taldeak eratu behar direnerako. Baina nazioarteko lankidetzaz-politika gehienak (pribatuak zein publikoak) ez datoz bat ikuspegi horrekin, eta eraginkortasuna, espezializazioa eta lanaren banaketa lehenesten dituzte.

Oro har, irismen mugatuagoa izan du gaitasun-garapenak GGKEen laguntza jaso duten familien bizibideetan, baina funtsezkoa izan da faktore hori agenda publikoan gai berriak txertatzeko (nekazaritza familiarra eta agroekologia, adibidez), liderrak trebatzeko eta garapen-ereduei buruzko eztabaidarako, herri-zein eskualde-mailan. Jesuiten tradizioari loturik dago, bestalde, laguntzaren

kontzeptua, zeina orientazio-gida gisara erabili dute bi erakunde horiek gaitasun-garapenean. Konfiantzako harremanak eraikitzen lagundu du kontzeptu horrek, eta ospe handia du; hori dela eta, eragina du herri eta eskualdeetako aldaketa sozialeko prozesuetan.

“Bi hankako” estrategien balioa frogatu egin da Peruko eta Kolonbiako landa-eremuan, bai eta mugikortasunaren eta enpleguaren garrantzi izugarrikoa ere. Familia gutxi bizi dira soilik nekazaritzatik, eta geroz eta gehiago nabari da gobernu-programen eragina familien bizibideetan, batez ere landa-eremuko jenderik zaharrenaren artean. IMCAren eta CIPCAren ekonomia- eta ekoizpen-eremuan, ordea, apenas islatzen diren dinamika horiek. “Lurra” aktiboari ematen zaion garrantziaren aldean, lausotuta geratzen dira lanaren kontzeptua (nekazaritzakoa eta nekazaritzatik kanpokoa) eta enplegurako gaitasunena. Bi talde bereziki garrantzitsuri ari da eragiten enplegua: gazteriari eta emakumeei. Landa-eremuko heziketaz eta zaintza-ekonomiaz zenbait gai eztabaidatzeko eta jorrazeko aukera zabalik dago, bada, horri buruzko azken lanek diotenari jarraikiz (Scoones, 2015). Faktore indartsuak dira lurra, lana eta zaintza landa-eremuan, eta gogoeta- eta ekintza-agendetan nahitaez kontuan hartu beharrekoak, gizarte bidezkoago eta duinago bat eraikitzeko ekinean.

8. Bibliografía

- ALBOAN.** (2011). *El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia.* Hemendik hartua: <http://desarrollo-alternativo.org/>
- ALBOAN.** (2015). *El desarrollo de capacidades como estrategia de cambio. Una experiencia colectiva de búsqueda de alternativas.* Hemendik hartua: <http://desarrollo-alternativo.org/>
- Alkire, S. (2002). *Valuing Freedoms: Sen's Capability Approach and Poverty Reduction.* Oxford: Oxford University Press.
- Alkire, S. (2007). "Choosing Dimensions: the Capability Approach and Multidimensional Poverty". Chronic Poverty Research Centre Working Paper 88, OPHI. University of Oxford.
- Bebbington, A. (1999). "Capitals and Capabilities: A Framework for Analyzing Peasant Viability, Rural Livelihoods and Poverty". *World Development*, 27 liburukia, 12. zenbakia, 2021-2044 orrialdeak.
- Bebbington, A. (2000). "Livelihood Transitions and Place Transformations in the Andes". *Annals of the Association of American Geographers*, 90. liburukia, 3. zenbakia, 495 -520 orrialdeak.
- Bebbington et & al. (2013). *Territorios en Movimiento. Dinámicas Territoriales Rurales en América Latina.* Documento de Trabajo N. 110. RIMISP: Centro Latinoamericano para el Desarrollo Rural.
- Centro de Memoria Histórica de Colombia. (2014). *Patrones y campesinos: tierra, poder y violencia en el Valle del Cauca (1960-2012).* Bogotá D.C.: Centro de Memoria Histórica.

- Deneulin, S., & Shanani, L. (2009). *An Introduction to the Human Development and Capability Approach. Freedom and Agency*. London: Earthscan.
- Deneulin, S. & Stewart, F. (2002). "Amartya Sen's contribution to development thinking". *Studies in Comparative International Development* 37 (2):61-70.
- Diez, A. (2015). *Estrategias de vida, cambios en la tenencia de la tierra y cambios demográficos en el mundo rural*. Hemendik hartua: www.academia.edu
- Frediani, A., Boni, A. & Gasper, D. (2014). "Approaching Development Projects from a Human Development and Capability Perspective". *Journal of Human Development and Capabilities*, 15 (1):1-12
- Frediani, A. (2010). "Sen's Capability Approach as a framework to the practice of development". *Development in Practice* 20 (2):173-187.
- Freire, P. (1970). *Pedagogía del oprimido*. Hemendik hartua: www.ensayistas.org
- Freire, P. (1967). *La educacion como práctica de la libertad*. Hemendik hartua: www.ensayistas.org
- Gasper, D. (2002). "Is Sen's Capability Approach and adequate basis for considering human development? *Review of Political Economy* 14 (4):435-461.
- GNBP.(2008). *Desarrollo de capacidades: nota práctica*. New York: GNBP.
- Nussbaum, M. (2012). *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*. Bartzelona: Paidós argitaletxea.
- Ray, C. (2006). "Rural Poverty and Development Strategies in Latin America". *Journal of Agrarian Change* 6(4):455-508.
- Ray, C. (2008). "Reflections on Latin American Rural Studies in the Neoliberal Globalization Period: a New Rurality?" *Development and Change* 39(6):915-943.
- Ray, C. (2009). "Development strategies and rural development: exploring synergies, eradicating poverty". *The Journal of Peasant Studies*, 36:(1):103-137.
- Robeyns, I. (2003). "The Capability Approach: An Interdisciplinary Introduction". Hemendik hartua: www.ingridrobeyns.nl.
- Robeyns, I. (2006). "The Capability Approach in practice". *The Journal of Political Philosophy* 14(3): 351-76.

- Scoones, I. (2015). *Sustainable Livelihoods and Rural Development*. Agrarian Change and Peasant Studies Series. Rugby, EB: Practical Action Publishing.
- Santuc, V. (1983). *CIPCA. Un proyecto en Piura*. Análisis de algunas acciones. Piura: CIPCA.
- Sen, A. (1999). *Development as Freedom*. Oxford: Oxford University Press.
- Sen, A. (1985). "Human Rights and Capabilities". *Journal of Human Development and Capabilities* 6(2):151-66.
- Sehnbruch, K. Bruchell, B., Agloni, N., Piasna, A. (2015). "Human Development and Decent Work: Why Some Concepts Succeed and Others Fail to Make and Impact". *Development and Change* 46(2):197-224.
- Standford Encyclopedia of Philosophy. <http://plato.stanford.edu/entries/capability-approach/>, apirilak 14, 2011.
- Wetzell, M. (2009). *Sistematización sobre la educación popular en los centros sociales jesuitas en Perú*. Barne-agiria.

